

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **2021eko MARTXOAREN 25ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2021eko martxoaren 25ean, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira Telematikoki eginiko bilkura honetan.

#### ZINEGOTZIAK:

Vicente Garcia Momblona  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Mireia Ruiz Delgado  
Jesus Maria Tejada Cantero  
Maialen Alonso Labandibar  
Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:  
➤ 2021eko otsailaren 25ean egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 25 de febrero de 2021.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. 2020ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada./Dación de cuenta de la liquidación correspondiente al ejercicio 2020.**
- 5. Larraulgo 2021 urterako Berdinbidean programaren onespena/ Aprobación del programa Berdinbidean de Larraul para el año 2021.**
- 6. Herri txikietan bizikidetza eta hezkidetza lantzeko proiektuaren onespena./ Aprobación del proyecto de convivencia y coeducación en pueblos pequeños .**
- 7. Larraulgo udala eta Tolomendi artean, Lakidetza-hitzarmenaren onespena, Tolosaldeko udalerrien informazioa eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako./ Aprobación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Larraul y Tolomendi para la promoción del trabajo compartido de dinamización y asesoramiento de tecnologías de la información y comunicación de los municipios de Tolosaldea.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8. 2021 urteko trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren erroldaren onespina. /Aprobación del padrón del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica para el año 2021.
9. 2021 urterako Udal zergen hobari eskaeren onespina, hala bada. /Aprobación de las bonificaciones en los impuestos municipales correspondientes al ejercicio 2021.
10. 2021 urterako udal tasen hobari eskaeraren onespina, hala bada./Aprobación de las solicitudes de bonificación de las tasas para el ejercicio 2021.
11. 2020/2021 Ikasturteko Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzen babesean, L.P.O. andreak eginiko diru-laguntza eskaera./Aprobación de la solicitud de ayuda económica realizada por L.P.O. para cursos de euskara, curso escolar 2020/2021.
12. Harituz Bertsozale Elkartek eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Harituz Bertsozale Elkartek.
13. Beste batzuk/Otros.
14. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
  - 14.1. Minbizia duten gaixoen eta bere familiako kideen laguntzeko
- 15 Euskal Elkarten deklarazioaren onespina/ Aprobación de la declaración de 15 asociaciones vascas en apoyo a los pacientes con cancer y sus familiares.

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2021 urteko otsailaren 25ean egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 23/2021etik 40/2021era Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BERRI LANTEGIA	70,82
IZFE	37,84
IZFE	193,60



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IZFE	2.054,60
MONTAJES GARRA	58,08
IÑAKI ESNAL	100,00
TOLOMENDI	931,35
BERRI LANTEGIA	55,30
GURE BAZTERRAK	570,00
UHINA	786,50
GAR-BI	92,57
ALKAIN	285,80
GOROSTIDI FERRETERIA	264,39
MELLIFERA	2.096,60
ZIZURKIL ELEKTRIZITATEA	92,26
INFOBIBLIOTECAS	201,90
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	899,03
SETALDEGROUP	134,07
ITZIAR UZKUDUN	106,25
ZU ETA BOK	1.446,46
EBA ERKIZIA	996,77
SERVIGRAF	226,27
OSCAR GALINDO	121,00
GUREAK MARKETING	1,39
KIROLZER	20,65
BERRI LANTEGIA	25,05
LARRAULGO HERRI OSTATUA	60,00
IBERDROLA	264,82
IBERDROLA	201,31
IBERDROLA	33,03
IBERDROLA	78,00
IBERDROLA	159,94
TELEFONICA	0,50
TELEFONICA	186,36
TELEFONICA	98,19

Udalbatza honek, **ahoz** hurrengo,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **12.950,70** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **LAUGARRENGO PUNTUA**

**2020KO AURREKONTURAEN LIKIDAZIOARAEN BERRI EMATEA, HALA BADA**

## **2021/25 DEKRETUA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT

**Lehen.** Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA


1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2020-12-31n:		132.671,83
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		27.306,62
Aurrekontuko zordunak :	25.681,79	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.624,83	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		37.700,87
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	17.126,33	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	20.574,54	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		122.277,58
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		122.277,58

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	51.706,70
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-757,70
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	46.700,58
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	97.649,58

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	25.213,36
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	73.976,13



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):

99.189,49

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipaturako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Bertaratuek jakinaren gain gelditzen dira.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO 2021 URTERAKO BERTINBIDEAN PROGRAMAREN ONESPENA**

Ikusirik, Emagin Elkartek aurkezturiko Bertinbidean programa, 2021 Larraul, non Larraulgo neska gazteekin ahalduntze prozesua abiatzea proposatzen den.

Aipaturiko programarekin ondorengo helburuak lortu nahi dira:

-Inguruko errealitatearen, eragile sozializataileetatik jasotzen dituzten mezuen edo jasan ditzaketen mikromatxismoen edo eguneroko erasoen azterketa genero ikuspegitik egin ahal izateko gaitasun kritikoa sustatzea eta sustatzen jarraitzea.


-Agindu horiek desaktibatzekeko estrategiak garatzea eta garatzen jarraitzea, emakume izateko modu bakar hori deseraikitzea eta bakoitzak nahi duen bezalakoa izatetik aske sentitzea, aniztasuna eta elkarrekiko errespetua aintzat hartuz eta aitortuz.

-Mikromatxismoei aurre egiteko estrategiak garatzea eta garatzen jarraitzea; Mugak jarri ahal izateko eta umoretik ere iruzkin edo jarrera matxistei erantzun ahal izateko.

-Emakumeen arteko elkartasuna lantzea, ahalduntze kolektiboa ezinbestekoa dela ulertuta, eraldaketa pertsonala eta soziala lortzeko.

-Desberdintasunen aurrean jarrera aktiboa sustatzea, emakumeen antolaketa sustatuz, aldaketen eragile bihur daitezen eta gai izan daitezen, beren bizitzak ez ezik, gizartea eraldatzeko ere.

Ikusita aipaturiko programa aurrera eramateko, 2021 urteko aurrekontuetan 226.231.50.05 kontu saila dagoela, eta gainera programa hau Foru Aldundiak diruz laguntzen duela.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Emagin Elkarteak aurkezturiko Berdinbidean programa, 2021 Larraul, onartzea eta egin dezaten kontratua esleitzea, 1.296,00euroko diru kopuruan.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Emagin Elkarteari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **HERRI TXIKIETAN BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA LANTZEKO PROIEKTUAREN ONESPENA**

Ikusirik Gaztematika proiektuaren babesean eginiko proposamena, non hasierako proposamen bat bezala proposatzen da, 8 herrietatik jasotako behar konkretu batzuei erantzuna emateko esku-hartze trinko eta iraupen jakin batekin nerabeentzat zuzendutakoa izango litzateke, astean 2 orduko bi hezitzaileen saioak egitearena du helburu.

Herrietan lokalekin loturiko arazoak azaleratu dira, baina lekua ez dela arazoa aipatzen da, baizik eta nerabeen artean ematen diren harreman arazoak eta hezkidetzarekin loturiko egoerak eta jarrera desegokiak. Horregatik, proiektu honen helburua nerabeen artean dagoen arazoari irtenbide bat eman nahian proposatzen da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gaztematika proiektuaren babesean Herri txikietan bizikidetza eta hezkidetza lantzeko proiektua onestea.

BIGARRENA: Proiektu honek ekarriko luken gastua onestea eta bere ordainketa 2021eko udal aurrekontuetako 226.337.20.06 Kontu sailaren kargura egin dadin onestea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO UDALA ETA TOLOMENDI ARTEAN EGINIKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, TOLOSALDEKO UDALERRIEN INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOLKULARITZA PARTEKATUTAKO LANAREN SUSTAPENERAKO**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkartek informazio eta komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen duela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udalak erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ikusirik Larraulgo Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia aztertutik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena onestea, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta Aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko lankidetzaz hitzarmena sinatzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **2021 URTEKO TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGAREN ERROLDAREN ONESPENA**

Ikusirik 2021 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udala Zergaren Erroldaren berri ematen dela, kuota gordina 21.558,61 eurotako delarik.


Gaia aztertutik, Udabatz honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2021 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udala errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzen.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onartutik 2021 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2021eko apirilaren 1etik ekainaren 7ra bitartekoa izatea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2021 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2021 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2021ko otsailaren 1etik 28 arte epea ireki zela, 13 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2021 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

TITULARRA	ZERGA	ARRAZOIA	ZENBA TEKOA
O.O.R.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.S.G	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
I.A.O	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.M.T.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
S.M.G.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
A.A.J	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.O.D.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
L.M.T.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
A.I.R.	TMIGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.U.A.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
K.J.S.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
X.A.I.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
J.U.E.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **HAMARGARREN PUNTUA**

#### **2021 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2021 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 28arte (biak barne).

Ikusirik, aipaturiko epean eskaera bakarra aurkeztu zela.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-C.G. andreari ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

### **HAMAİKAGARREN PUNTUA**

#### **2020/2021 IKASTURTEKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN BABESEAN, L.P.O. ANDREAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik L.P.O. andreak eginiko eskaera, non 2020/2021 ikasturtean Euskarako C1 maila prestatu nahi duela, Lazkaoko Maizpide euskaltegian, ikastaroa 2021/02/01etik 2021/02/26 burutu duelarik eta klaseen kostu osoa 321,00 euro izan dira. Horregatik Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: L.P.O. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Lazkaoko Maizpide euskaltegian, burutu duen Euskarako C1 maila lortzeko ikastarorako diru-laguntza ematea, ondorengoari baldintzaturik:

-Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.

-%85eko asistentzia justifikatu beharko du.

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzi ziurtagiria aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-% 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.

-%50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.

Kasu honetan, ikastaroa burutu duenez eta asistentzi ziurtagiria aurkeztu duenez, %100 ordainduko zaio.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri L.P.O. andreari ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA**

#### **HARITUZ BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten helburua dela Tolosaldean bertsozaleen belaunaldi belaunaldi transmititzea eta horretarako beharrezkoa dutela soldatapeko irakasle bat kontratatzea (koordinazio, Bertso eskola eta Komunikazio lanak egingo dituen), beraz azken honen soldata ordaintzeko diru-laguntza eskaera egiten dute.

Ikusirik 2021eko udal aurrekontuetako 422.334.00.03 kontu sailan, eskatutako diru-laguntza adina kopurua aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari 500,00 euroko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari jakinaraztea udaletxe honetan emandako diru-laguntza zuritzeko urteko memoria, gastu eta sarreraren kitapena, gizarte segurantzaren eta zerga ogasunean egunean daudela dioen aitorpena eta dagozkion fakturak aurkeztu beharko dituela.

### **HAMAHIRUGARREN PUNTUA**


#### **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **HAMALAU GARREN PUNTUA**

#### **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

#### **14.1. MINBIZIA DUTEN GAIXOEN ETA BERE FAMILIAKO KIDEEN LAGUNTZEKO 15 EUSKAL ELKARTEEN DEKLARAZIOAREN ONESPENA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, minbizia duten gaixoen eta bere familiako kideen laguntzeko 15 euskal elkarteek aurkezturiko adierazpen instituzionala, non ondorengoa dioen:

### **“ ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, MINBIZIAREN AURKAKO MUNDUKO EGUNA DELA ETA**

*Minbizia da mundu mailako arazo soziosanitariorik garrantzitsuena. Bigarren heriotza-kausa da munduan, eta 2030erako kasu berriak % 30 baino gehiago haztea aurreikusten da.*

*Bi gizonetik bati eta hiru emakumetik bati minbizia diagnostikatuko zaie bizitzan zehar. Kalkuluen arabera, egun, Euskadin, 75.000 pertsona baino gehiagok dute minbizia. 2019an bertan, ia 15.000 kasu berri diagnostikatu ziren.*


*Pandemiak eragindako krisiak areagotu egin du pertsona horien eta beren familien zaurgarritasun soziala eta sanitarioa. Kolektiboa bi aldiz da zaurgarria, minbiziagatik eta Covid-19gatik. Afekzio berri eta larriak ageri dira. Esate baterako: inpaktu sanitarioak izan dira infektatuei eman behar izan zaien lehentasunezko arretaren ondorioz; gaixoen %30ek baino gehiagok osasun mentaleko arazoak eta antsietatea pairatu dute konfinamenduagatik, eta gaixotasunaren ondorioz sortu diren kostu sozio-laboralen % 45 bere gain hartu behar izan dute.*

*Minbiziaren aurkako Munduko Eguna dela eta, elkartasuna adierazi nahi diegu kaltetutako pertsoneri, eta, era berean, gizarte osoa bizimodu osasungarria izatera animatu nahi dugu; hau da, minbiziaren arrisku-faktore garrantzitsuenak saihestera (tabakoa, alkohola, eguzkiarekiko esposizio desegokia, obesitatea, sedentarietatea, eta abar); bizitza aktiboaren eta elikadura osasungarriaren aldeko apustua egitera; eta koloneko, bularreko eta zerbidoetako baheketen hitzorduetara joatera.*

*Uste dugu minbizia ikertzeko, sendatzeko eta haren ondorioak zein tratamenduak hobetzeko behar beste baliabide behar direla. Halaber, uste dugu zaintzak sustatu behar direla, eta minbizia duten pertsonen eta haien familiek beren eskubideak bermatzeko behar diren bitartekoak jaso behar dituztela.*

*Horiek horrela, minbizia duten pazienteen eta haien senideen alde lan egiten duten elkarten eginkizuna sozial eta sanitarioaren balioa aitortu nahi dugu, eta nabarmendu nahi dugu erakunde publikoek babestu, bultzatu eta egituratu behar dutela boluntarioek eta gizarteak berak elkarte horien bidez egiten duten ahalegin sozial eta ekonomikoa. “*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Minbizia duten gaixoen eta bere familiako kideen laguntzeko 15 euskal elkarteek aurkezturiko adierazpen instituzionala bere osotasunean onestea.

*Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:30 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*